

ETHAZI proiektu pilotu bat da, non lanbide heziketako zikloetako ikasleek, gaitasun teknikoez gain, zeharkako gaitasunak ere barneratu behar dituzten, beti koherentzia bat edukiz lan munduarekin (talde lana, komunikazioa, ikasten ikasi...). Proiektu honen ezaugarriak garrantzitsuena lan taldean aritzea da.

Taldearen indarraz aprobetxatuz, ikasleak beraien helburuak lortu behar dituzte eta taldearenak ere, hau da, gaitasun indibidualak taldekoarekin eskuragarri egongo dira, horrela helburu guztiak lortzeko, garrantzitsuena ahaztu gabe, ikastea.

Hori dela eta, metodologia honen helburua lanbide heziketako ikasleen gaitasun profesionala hobetzea da. Gaur egun, profesional on bat ez da gaitasun teknikoak bakarrik dituen bat, baizik eta, horretaz gain zeharkako gaitasunak dituenak ere.

PROFESIONAL ONA = gaitasun teknikoak + zeharkako gaitasunak

Hau lortzeko metodologia konkretu bat eraman behar da aurrera, erronketan oinarritutakoa hain zuzen ere. Bereizitasun nagusiak:



- Taldeetan antolatuz proiektu edo erronketan lan egingo dute ikasleek.
- Proiektuak intermodularrak.
- Ikasleak lehen egunetik taldeka.
- Zikloko irakasle talde autonomoa.
- Asteko plana erronkaren beharren arabera. Irakasle = moduloa EZ!!
- Ebaluazioa: konpetentzien eboluzioan oinarritua.
- Antolakuntza aldetik flexibilitatea, baita espazioan ere.

Adibidez erronka bat aurkezten zaienean jarraitu beharreko atalak, garapena honako hauek izango litzateke.

1. Erronkaren definizioa
2. Formakuntza (irakasleek ikasleei formakuntza minimo bat erronkan landu beharreko gaiaren inguruan)
3. Planifikazioa: aurreproiektua
4. Exekuzioa: diseinatzen dena ondoren fabrikatu tailerrean
5. Ebaluazioa: memoria eta aurkezpena




Tknika, Erreterian kokaturik dagoen Euskal Elkarte Autonomorako Lanbide Heziketarako Berrikuntza Zentroa da.

Tknika EAeko Lanbide Heziketarako Berrikuntza Zentroa, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzak bultzatutako zentroa da. Ardatz nagusitzat berrikuntza izanik, Tknikak EAeko lanbide-heziketa Europako abangoardian kokatzea lortzeko helburuz egiten du lan egunero.

Sare-lanaren bitartez eta lanbide-heziketako irakasleen inplikazioari esker, munduko eredurik aurreratuenak erreferentetzat dituen zentro honek teknologiaren, prestakuntzaren eta kudeaketaren eremuekin lotura duten berrikuntza-proiektuak garatzen ditu.

Tknika-MAI elkarlana

Tknikaren jardunak irakasleon jarduna oinarri duenez, berrikuntzaren bidea garatzeko aukera bikaina eskainiz, Miguel Altuna Institutuko irakasleok parte hartze zuzena izan dugu bertan garatutako hainbat proiektutan zentroak egingdako ibilbidean zehar.




Miguel Altuna Institutuan metodologia hau Diseinu Fabrikazio Mekanikoko goi mailako zikloan aurreko kurtsoan txertatu zen modu pilotu batean. Aurten bigarren urtea da, eta orain arte atera diren ondorio positiboak eta negatiboak honako hauek dira:

- + Ikasleak gustura etortzen dira (motibatuta).
- + Klaseak praktikoagoak dira.
- + Zeharkako gaitasunak gehiago lantzen dira: komunikazioa, autonomia, talde lana, sormena...
- + Lan munduan aurkituko dituz-


ten arazo errealetatik gertuago gaude.

- Gai batzuk eman gabe gera daitezke.
- Taldean lanak banatzean banakako ikasketa ez da orekatua. Denok ez dute berdina ikasten.
- Irakaslearen ezagupen maila zabalagoa izan behar da.
- Taldeko arazoak.



Alde onak: Joko asko, ikasgai intermodularki lantzeko aukera. Proiektu desberdinetan ikasgai desberdinak txertatzeko aukera. Ikasleak diseinatzen dutena, fabrikatu ere egiten dute beraiek tailerrean. Horrela, akatsak ikusi eta soluzionatzen saiatu. Hau oso aberasgarria da eta ikasleen artean motibazioa lortzen da. Lan taldean burutzen dute dena eta honi esker ikasleak gusturago etortzen dira klaseara.

Alde txarrak: DCBa jarraituz materia batzuk ez dira ematen, sakrifikatu beharra. 2. mailan, ez dago tailerra eta moduluak intermodularki lantzeko ezintasuna dago. Honetaz gain, irakasleak ere aditu-rol handia izan behar dute, hau da, ikasgai guztietan teknikoki prestatuta izatea. Horregatik, irakasleei inplikazio gehiago suposatzen zaie.



EBALUAZIOA

E baluatzerako orduan, alde batetik gaitasun teknikoak ebaluatzen dira, eta bestetik, zeharkako gaitasunak.

Gaitasun Teknikoak:

- Erronken nota taldeka
- Banakako frogak

Zeharkako gaitasunak:

- Sormena
- Talde lana
- Ikasten ikasi
- Erantzukizuna

Gaitasun teknikoetako dagokionez, irakasleak – ikasleak ebaluatuko dituzte. Zeharkako gaitasunei dagokionez, berriz, IKT erremintak erabiliz, hau da, on-line dagoen plataforma baten bitartez, irakasleak – ikasleak, ikasleak bere burua eta ikasleak bere taldekideak ebaluatuko dituzte. Nota finala 3 nota hauen media izango da.



Alde onak: Erronkak eginez gero errealitate gertuago, eginez ikasten da, eta orokorrean ikasleak gusturako sentitzen dira (motibazio handiagoa).

Alde txarrak: Taldeetan sortu daitezkeen arazoak, irakasleak eman behar duten guztia ez dutela ematen sententzia, eta irakasleak denetik jakin behar, aditu-rol handia.

IKASKUNTZA KOORDINATZAILEA / IRAKASLEA

Metodologiaren alde onak: Ikasten da beharra daukazulako eta ez derrigortuta zeozer ikastera. Erronketan oinarrituz, arazo bat planteatzen dizute, eta honekin, gauzak aztertuz lortzen duzu soluzio bat aurkitzea. Gainera, horrela, hobeto barneratzen dira kontzeptuak. Talde lanean aritzea ere oso positiboa da. Askok ikasten da bata besteekin. Alde txarrak: Berriak da! Orain arte modu tradizional-lean eta pixka bat kostatu egiten da txipa aldatzea. Gainera, hasieran inseguritate apur bat sortarazten du.

ZUZENDARIA

Metodologia hau joan zen urtean txertatu zen ikasketean ziklo batean bakarrik. Aurten hiru zikloetan dago, eta datorren urteari begira, ikasketxe guztioko ziklo denetan txertatzea aurre ikusten da. Gaur egun, beste zikloetan betiko metodologiarekin jarraitzen dute: klase magistralak + azterketak. Metodologia berri honen alde onak: zeharkako gaitasunak gehiago lantzen direla, eta ikasketa kooperatiboa bultzatzen dela. Alde txarrak: Pilotu diren gauza guztiak hasierako urteetan ikusten direla akatsak/oztopoak.

IKASLEA

KOMUNIKAZIO TAILERRA

ETHAZI (Etekin Handiko Zikloak) proiektuaren lehenengo komunikazio saioa izan zuten "Diseinua Fabrikazio Mekanikoan" izeneko goi-mailako zikloko ikasleek. Tailer honetan, ETHAZIn lantzen ari diren Zeharkako Gaitasunen artean, garrantzi gehien duenetakoa landuz Virginia Imazekin: **Komunikazioa**.


Diseinua Fabrikazio Mekanikoan ikasleek, proiektu honen bidez, ikasleak berak hartzen du protagonismoa ikasteko prozesuaren dinamika aldatuz eta elkarlana nagusi duten testuingurua sortzen ari direlarik. Horrela, ikasleek IKT aplikatuak, kreatibitate teknikak, elkarlanean ikasketa, simulazioak, kasuak aztertzea, analisia, PBL eta gaitasunen bidezko ebaluazioa lantzen ari dira.

Erronketan oinarritutako metodologian, proiektu bakoitza amaieran aurkeztu behar izaten dutenez, denen aurrean hitz egiten soltura bat lortzeko, postura, entonazioa, gestoak... lantzen aritu dira komunikazio tailer honetan. Honetaz gain, urduritasunak kentzeko hainbat teknika ere erakutsi die.

Tailer honekin ebaluatzen diren zeharkako gaitasunak hobetuko dituzte. Gainera etorkizunerako, lan munduari begira ere, oso ondo etorriko zaie horrelako saioak.




Oso baliagarria da ondo komunikatzen jakitea. Zaindu behar diren atalak pertsona konkretuen artean. Baina nire ustez hemendik ateratzen dudana honako hau da: komunikazio tailer honen bitartez ikasleak ezagutzeko, baita beraien ni, aukera paregabea izan da.



Horrelako tailerrak oso baliagarriak dira ikasleak beraien artean ezagutzeko, konfiantza hartzeko. Baita lanak aurkezterako orduan edota enpresa batera joatean nola jokatu, nola komunikatu behar den. Zaindu behar diren alderdi guztiak.

IKASKUNTZA KOORDINATZAILEA /
IRAKASLEA



Zeharkako gaitasunak lantzen direnez, KOMUNIKAZIOA lantzea ere oso garrantzitsua da. Horretarako, horrelako gaitasun bat praktikatzeko edota truko batzuk ikasteko oso interesgarria eta baliagarriak iruditzen zait horrelako tailerrak adituekin.

I
K
A
S
L
E
A